

ZIRTAK

Angel Erro

IDAZLEA

Errezitaldia

Isiluneak gaina hartu du, hara bildutakoen artean azkenak ere jabetu direnean hor norbanako bat zutik dagoela, eskuan papertxo bat, tartean hari eta tartean jendeari begira, inon ere arreta luzeegi lotu gabe, batari begi ematea bestearen aitzakia eta aitzinkaria baino ez balitz bezala.

Isilaldia ahula da, baina. Datorrenetik datorrelako. Tenkatzera, berehala adituko lirateke kaleko garrasiak, iskanbila, zeinean ordura arte barrunbe ilunkara honek ere parte hartzen baitzuen, hara bildutakoak (ontzi komunikatuen teoriaren nolabaiteko egiaztapenean) solas ozena berrartzera bulkaturik.

Hutsunea betetzeko, eta ez, eskuan papertxoak, zutik dagoenak unea iritsi dela erabaki duelako, idatzitakoa irakurtzen hasi da. Poema bat da. Denek erreparatu diote segituan. Batzuek lehenagotik bazekiten. Musika leun bat ere hasi da.

Errepresentazio honek milaka urtez dirau. Zutik dagoen norbanakoak argi ahoskatzen ditu, behar duten erritmoa nabarmen markatuz, hexametrorak, eta gero dotoreziaz ixten du distiko bakoitza. Distrailtu ez direnek (zorionekoak hitzen arrimura distrailtzen direnak!) miretsi lezakete zeinen termino bidezkoetan aipatu duen poetak etxeko jabea, hortxe baitago, jainkoekin ahaidetua, belarriei sinestera, garaitu dituen batailen ohoreagatik.

Hortik gutxira, poemak, oraindik berbera baldin bada, beste norabide bat hartu du, bidean galdutako baten baten arreta berreskuratuta: maite kontuak aipatu dira. Giroa mendi eta basoez, berdegune eta lorategiez kargatu da. Aieneka dabil, aurpegia ere olerki, poeta. Hara bildutako batzuek –ni neu tartean– ondokoari begiratzen diogu, hodeituta, entzun berri dugun xamur eta oparotasunaren kutsadura barrundatu nahian, harik eta errima bereziki deigarri



JOSU SANTESTEBAN

batek, haizean berean dardar, sonetora itzultzen gaituen arte.

Musikarako tarte laburrean, zutik dagoenak eskuko papera lurrean utzi eta beste bat hartzen duen bitartean, arnasa berrartzen dugu denok. Ez nintzen gai izanen poemak zertaz ziharduen esateko ere; are gutxiago, gustatu ote zaidan. Irudi goi-arnasadunak, metafora leundu bereiztezinak, bihuelaren doinuan galtzen diren abiada berean, hitzen zurrunbilotik esaldi nahi bat etorri zait, oroitzapen formagabearen itxurapean: “Ustekabekoa maiz gertatzen da”.


Ustekabekoa maiz gertatzen da. Hola esanda, ez dirudi gauza handirik eta buruan dabilkidana tontakaria bat da –ez dut esanen–, baina maiz gertatzen da ustekabekoa. Badakizue zertaz ari naizen.

Pentsamendu hau ere ezabatu du poetak hitza hartu duenean berriz ere. Hurrengo *testua* azaltzen hasi da, non eta zergatik, noiz eta nola idatzi zuen. Askok irri egiten dute azalpenaren toki jakin batzuetan. Harrigarria da, ez bada zuzenean beldurtzekoa, jendearen irri komuna, irriek beraiek oihartzundua, ezeztatua. Nire ondoan eserita dagoenak ere egin du irribarre (poetak bere amona aipatu duenean), eta –bai, bai, badaki– bakeak egiten ditut gizadiarekin. Argia apaldu da eszenatokian, musika elektronikoa goxoa hastearekin bat, eta tarte batera mailot beltzaz jantzitako dantzari bat haragitu da ilunpeetatik, hor zutik dagoenak aletzen dituen isurkari eta txinparten segidari neurria ematera.

Errezitaldia amaituta, hara bildutakoak arrotz gisara elkarri begira mugitzen dira eserlekuetan, pixkanaka, oharkabean, iskanbilak, kaleko zarataren biziak aretoa berriz bere egiten duen arte.

Ondokoa altxatzen den bitartean, nagiki biltzen ditut nire gauzak; izan ere, ustekabekoa maiz gertatzen da. ■

Argia apaldu da eszenatokian, musika elektronikoa goxoa hastearekin bat, eta tarte batera mailot beltzaz jantzitako dantzari bat haragitu da ilunpeetatik, hor zutik dagoenak aletzen dituen isurkari eta txinparten segidari neurria ematera



irudia: Antton Olariaga